



Ez begiratu beste alde batera!

Denon erantzukizuna da
indarkeria matxistari aurre egitea



ARRISKU EGOERETAN...

24
ordu



SOS DEIAK 112

Azkoitiko Ertzaintza 943 08 37 80

Udaltzaingoa 943 85 71 71

INFORMAZIO KONFIDENTZIALA eta ANONIMOA nahi baduzu...



Telefono bidezko Informazio eta Arretarako

Zerbitzu Espezializatua 900 840 111 

(doakoa eta hainbat hizkuntzatan)

AURREZ AURREKO ARRETA nahi baduzu...

Biktimari laguntzeko zerbitzua 900 100 928
(doakoa)

Azkoitiko gizarte zerbitzuak 943 85 71 74

Astelehenetik ostiralera 08:30etik 15:00etara

LESIO ARINEN KASUAN...



Azkoitiko Osasunetxea 943 007 610

Etengabeko arreta gunea (EAG) AZPEITIA 943 025 400

NOLA IDENTIFIKATU INDARKERIA EGOERA BAT?

Indarkeria matxistak aurpegi anitzak ditu



MIN FISIKOA: bultzadak, kolpeak, objektuak botatzea, gauzak apurtzea, zainketa eta laguntza medikoa ukatzea, alkohola edo drogak kontsumitzera behartzea ...



MIN PSIKOLOGIKOA: garrasiak, mehatxuak, irainak, umilazioak, kontrola (deiak, mezuak, sare sozialak, diru-kontuak eta gastuak, lagunekiko eta familiarekiko harremak), ez ikusiarena egitea...



MIN SEXUALA: Harremanak sexualak izatera behartzea; baimenik gabe ukitzea; erasotzea, ezkontzera edo prostituitzera behartzea; mutilazio genitala edo nahitaezko esterilizazioa egitea; irudiak edo eduki intimoko edozein material zabaltzea, pertsonaren baimenik gabe...

GOGORATU !!!

- Indarkeria matxista arazo sozial larria da, ez da kontu pribatua.
- Errua beti erasotzailearena da.
- Biktimen seme-alabak ere biktimak dira.
- Zure egoera administratiboa eta pertsonala edozein dela ere, baliabide eta profesional ugari daude laguntzeko prest.
- Gizarte Zerbitzuen laguntza jasotzeko ez da salaketarik behar.



ZER EGIN DEZAKEZU?

Eraso matxista baten lekuko bazara...

BIKTIMAREN **BIZIA**
ARRISKUAN DAGO



DEITU BEREHALA!

112 larrialdiak

Entzumen edota hizketa urritasuna izanez gero, erabili:

APP 112 SOS DEIAK

EZ JARRI ARRISKUAN

Erasotzaileari zuk bakarrik aurre ez egin.
Beste herritar batzuen laguntza bilatu.
Poliziarri deitu diozula esan.

BIKTIMAREN **BIZIA**
EZ DAGO **ARRISKUAN**



DEITU eta EKIN!

Azkoitiko Ertzaintza **943 08 37 80**
Udaltzaingoa **943 85 71 71**

**SAIATU ERASOARI BURUZKO AHALIK ETA
INFORMAZIO GEHIEN BILTZEN**
Jarri informazio guzti hori poliziaren eskura.
Argazkiak edota bideoak edukiz gero, **ez
zabaldu edo partekatu sare sozialetan.**

Sexu eraso baten kasuan

- **BABESTU** Pertsonaren eta gertatutakoaren konfidentzialtasuna gorde.
Toki seguru eta lasai batera eraman.
- **BALORATU** **Laguntza medikoa** edo **polizia laguntza** behar badu.... **Deitu 112**
Ez deitzeko esaten badizu, eman denbora, hitz egin berarekin eta
900 840 111 zenbakira **deitzera animatu**.
- **LASAI EGON** Galdetu zer behar duen, errespetatu haren erritmoak eta erabakiak.
- **ENPATIZATU** Saihestu alferrikako galderak eta ez epaitu.
- **GOGORATU** Lagin biologikoak hartu ahal izateko, arropa ez aldatu eta ez garbitu.

EZAGUNEN BAT EDO HURBILEKO NORBAIT INDARKERIA JASATEN ARI DEN SUSMOA BADUZU...

• Bilatu informazioa eta aholkularitza



Deitu **TELEFONO BIDEZKO INFORMAZIO** eta **ARRETARAKO ZERBITZU ESPEZIALIZATU**ari

900 840 111 (doakoa eta hainbat hizkuntzatan)

24
ordu



Jarri harremanetan **UDALAREN GIZARTE ZERBITZU**ekin
Herriko plaza z/g

943 85 71 74 Astelehenetik ostiralera, 08:30etik 15:00etara

• Hitz egin

- Bilatu une egoki bat, erasotzailearengandik urrun, eta alboan zaudela esan.
- Laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak daudela gogorarazi.

• Zure laguntza eskaini

- Zaindu bere segurtasuna eta zurea. Zuhurtziaz jokatu arazo gehiago ez sortzeko.

• Ulertu eta errespetatu

- Baliteke berak urratsik eman nahi ez izatea. Uler ezazu eta jarraitu zure laguntza eskaintzen.
- Indarkeriatik ateratzea prozesu konplexua da, indartsu egon behar du aurre egin ahal izateko.



AZKOITIA
Udala

AZKOITIA

**INDARKERIA MATXISTAREN AURKA
AZKOITIA CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA**

www.azkoitia.eus



Informazio gehiago:

gizar@azkoitia.eus
943 85 71 74

berdintasuna@azkoitia.eus
943 54 20 14



AZKOITIA
Udala